



# *Krisitik irteteko gure gidoia idatzi eta horren alde borrokatu behar dugu”*

**AINHOA ETXAIDE**

Ainhoa Etxaide Amorrortu LABeko militantea eta sindikatuaren Eskola Feministako arduraduna da. Amorruz bizi du koronabirusa baliatuta botereak abiatu duen erasoaldia, 2008ko krisiaren ondorioak oso presente baititu. Arrazoa ezkerrena dela dio, baina botere kontua dela hau eta momentuz ez dagoela herritarren eskuetan. Datorkiguna “ikaragarria” izan daiteke, ohartarazten du, baina, borrokatuz, boterearen agenda oztopatzeke eta alternatibak garatzeko aukerak daudela sinetsita dago.

 ZIGOR OLEAGA  HODEI TORRES

## **Nola ari zara bizitzen aste hauek?**

Antsietate handiz eta oso amorratua. Berehala etorri zitzaizkidan burura 2008tik aurrera bizitakoak. Gatz, oraindik itxi gabeko zaurietan. Amorrua sentitzen dut batzuek etxeko lau paretan artean itxi gaituztelako, euren interesak askatasun osoz babesten eta borrokatzen dituzten bitartean. Ez gaude isilik, sareetatik, leihoetatik eta balkoietatik kritikatzeko eta salatzen ari gara. Sindikatuak ari dira, ahal den neurrian. Baina ongi dakite horrela ez dugula botereari aurre egiteko gaitasunik.

## **Zein agertoki irudikatzen duzu alarma egoera eta konfinamendua amaitzen direnerako?**

Lan merkatuan ondorioak nabarmenak izango dira eta aurrekontuak berregingo dituzte. Esango digute diru iturriak txikitu direnez soldata, zerbitzu edota prestazio bidez iritsiko zaiguna askoz ere urriagoa izango dela. Krisiaren on-

dorioz, diote, baina egiten diren politiken emaitzak dira. Politikak aldatzen badira, emaitzak ere bai. Egiten uzten badiegu krisia langileok ordaindiko dugu, eta botere ekonomikoak aukera paregabea izango du bere interesetan sakontzeko.

**Espainiako bankuak BPGaren %6,6 eta %13,6ra arteko jaitsiera aurreikusten du 2020rako, eta %18,3 eta %21,7 arteko langabezia tasa. Frantziako Bankuak BPGren %6ko hondoratzea aurreikusten du urtarrila eta martxoa artean.**

Koronabirusa agertu aurretik ekonomia moteltzen ari zen, BPGren jaitsiera posiblea zenbatekoa izango zen eztabaidatzen ari ziren, krisi hotsak biderkatzen. Orain, gutxi batzuentzat oso oparoa den eredu ekonomikoaren ibilbidea eten egin da tarte batez, eta egoera tamalgarrian utziko gaitu denak. BPG asko jaitsiko da, baina zergatik jarri arreta hor? Zego-

naz, dagoenaz eta ekonomia berreraiki behar dela esaten dugunean irudikatzen dugunaz gure argazki propioa egin behar dugu. Krisitik irteteko gure gidoia idatzi eta horren alde borrokatu behar dugu.

## **Enplegu merkatuari dagokionez, zein egoera espero duzu Euskal Herrian?**

Enplegu asko suntsitu da eta suntsituko da enpresek hori erabaki dutelako, haien errentagarritasuna irizpide bakarra dela ulertuta. Legeak eskuetan egingo dute, babes eta laguntza instituzional osoarekin.

Krisiaren aurrean zer zaintzen eta babesten den da kontua. Enplegu gutxiago suntsituko da irabaziak dituzten enpresetan kaleratzeak debekatzen badituzte, gertuko ekonomia berpizteko eta sendotzeko politika erreala eta eraginkorrak egiten badituzte. Enplegua sortuko da zaintzarako sistema publiko bat eraikitzeko erabakia hartzen bada. Zerbitzu publikoak indartzen badira. Lanorduak murrizten eta berrantolatzen badira.



### **Eta ordaindu gabeko lanen eremuan?**

Merkantilizatu dituzten espazioetan gaizki, eta arautu gabekoetan are okerrago. Etxeko langileak eskubiderik gabe sartu dira krisi honetan eta asko kale gorrian geratu dira, paperik gabe askotan, inolako babesik gabe. Zahar egoitzetan, etxez etxeko zerbitzu edota garbiketa enpresa askotan baino segurtasun neurri gehiago dituzte industriako hainbat enpresatan. Zerbitzu hauei baino balio gehiago ematen zaio AHTari edo Bilboko Supersur errepide zatiari. Eta hor daude ondorioak. Emakume asko gaixotu da eta egin diren salaketek ez dute beste borroka batzuen oihartzunik lortu.

### **Jendarteko zein sektore izango dira kaltetuenak? Gure belaunaldiak ikusi ez dituen pobrezia eta bazterketa mailak ikusiko ditugu?**

Konfinatu gaituzte eta politika bera aplikatuz ezberdintasunak areagotu dituzte. Etxeak eta familiak ez dira espazio seguruak indarkeria matxista bizi dutenentzat. Aurrezkiei esker bizitza ez da aukera bat soldata oinarrizko premiak asetzen agortu dutenentzat. Etxegabeak ezin dira konfinatu. Berdin zaie. Erabakiren bat hartu da, presioen ondorioz, baina fundamentuzko ezer ere ez.

Ez dago pobrezia buelta ematerik eskubide sozialen iturria enplegua bada eta politika sozialak jarduera ekonomiko kapitalistaren araberakoak badira. Prekarietatea eta bazterketa soziala derri gor handituko dira oinarrizko bizi premiak merkatuan erosi behar badira. Ez baitira publikotik ziurtatzen, etxebizitza bereziki. Egoera horiek ez dira krisiaren ondorioak, ereduaren emaitza logikoa baizik.

### **Enpresa txiki eta autonomo asko desagertu daitezke, handien probetxurako.**

Lehiakortasunaren izenean egin dituzte politika ekonomiko guzti-guztiak, eta gure oinarrizko egitura ekonomikoa izan behar duen gertuko ekonomiak –enpresa txikiak, autonomoak...– ez du inolako aukerarik enpresa handiekin lehiatzeko. Komertzio txikia itxirik dago Amazon eta antzekoek negozioa egiten duten bitartean. Edo negozioa egin dezaten. Handiak txikia jango badu, sarraskia ikaragarria izango da.

Baina badago zer egin: jarduera ekonomikoaren etete partzialetik erato-





rritako zorrak kendu, jarduera berreskuratzeko laguntzak eman, enpresa bakoitzaren errealitatearen arabeko neurriak ezarri, enplegua mantentzen dela ziurtatu laguntzak ematerakoan...

**Botere guneetatik irteera keynesiar eta 'sozialago' baten aldeko ahotsak ere entzuten dira: Marshall plan berri bat Europan, gutxieneko errenta unibertsala Silicon Valleyko zenbait gururen ahotsetan...**

2008an sistema finantzarioaren kontrola zorroztu behar zela entzun genuen. Badaude eredu soziala indartu behar dela aldarrikatzen dutenak, kapitalismo berdea posiblea dela pentsatzen duenik eta M8an benetako berdintasuna ezarriko duen feminismo liberala aldarrikatzen duenik ere. Sistema betikotzeko moldaketak lirarteke. Hor ez dago alternatibarik.

Dena den, uste dut badagoela zer eztabaidatu. Ez ditzagun lorpen erreformistak baztertu, gutako batzuk neurri horiek gabe bizi gaitezkeelako. Politika sozialak herritar askoren bizi aukera bakarra dira. Bata edo bestea dikotomian zangozabatu beharrean, alternatibek behar duten trantsizio prozesuaren eztabaidan sakondu behar dugula uste dut.

**EAJ zer posiziotan ikusten duzu?**

EAJn ez da inolako sentsibilitate sozialik antzematen, oso esanguratsua da. Kontrakoa: aipatzen diren neurri edo politika batzuk EAJk zuzendutako gobernuak ezarri zituzten –Diru

Sarrerak Bermatzeko Errenta, kasu- eta orain horiek deuseztatzea da Jaurlaritzaren helburua. Ez dut uste lehengo eta gaurko EAJ denik aldea. Garai bateko garaien sozialak dira, behartuta hartu zituzten neurriak. Pasa den krisian asko suntsitu zuten eta oraingoan bide beretik doaz.



***EAJk pasa den krisian asko suntsitu zuten eta oraingoan bide beretik doaz”***

**Zaldibargo krisitiko geroztik, krisi honen kudeaketan hainbat polemika piztu dira...**

**EAJren kudeatzaile onaren mitoan arrakalarik ikusten duzu?**

Bakoitzaren proiektuak eta balioak eguneroko erabaketan antzematen direla ikusi genuen Zaldibarren. EAJk zaborrak kudeatzeko sistemaren eta bere

atzean dauden interes eta enpresen alde egin zuen hasieratik, langileei eta familei bizkarra emanez, eta herriari informazioa ukatuz. Baina Zaldibarkoa ez da kudeaketa kontua bakarrik. Zabor gehiegi sortzen da eta sortzen dugu. Eztabaida sisteman eta bere ondorioetan kokatzen dugun neurrian galdu egiten du indarra EAJren kudeatzaile hobere-naren irudiak.

**Krisi honetan ere estatuek protagonismo eta eskumen handiak hartu dituzte nazioarte mailan, eta barne mailan zentralismoa eta militarizazioa indartu dituzte... Estaturik gabeko nazioentzako zer ondorio izango du horrek?**

Aurreko krisian neurri ekonomiko zoz zorrotutako erreforma politiko oso bat inposatu ziguten, guztiz zentralizazioa, oso uniformatzailea. Egin ziren erreformekin kudeatuko dute krisi hau, atzetik zetorren joera indartuz.

Madrilek erabakiko du lan arloan, arlo sozialean, aurrekontu politikan... Nafarroa eta EAEko gobernuen oniritziarekin.

Azken asteek aztertze eta eztabaidatzeko asko eman dute. Estatu bat edukitzearen premia. Estatu ereduaren gogoetak duen garrantzia. Espainiako Estatuak errepresioa eta militarizazioa bere ADNan duela erakutsi du berriro. Gobernantza ereduaren auzia ere azalarazi da: zein da udal erakundearen papera, zergatik ez da krisiaren kudeaketa lekuan lekuko planetan oinarritzen, zergatik ez dugu erabakietan parte hartzeke inolako aukerarik herritarrok eta eragileok... Herri bezala egiten baditugu gogoeta hauek, baliaigarriak diren erantzunak bilatuz eta adostasun zabalak eraikiz, Estatuetatik kentzen diguten bizitza eta arnasa emango diogu Euskal Herriari.

**Ezkerrera eta herrigintzara begirada bideratuz: Zeintzuk dira erronka nagusiak eta zeintzuk horiei erantzuteko bideak?**

Urgentzia sozialei erantzuteko Pobrezia 0 plana: funtsezko zerbitzu eta presta-

zio publikoak eta unibertsalak ziurtatzea, bizi ahal izateko oinarritzeko gauzak (ura, argia...) nazionalizatzea; politika horiek guzti-guztiengana iristen direla ziurtatzea.

Zaintzarako sistema publikoaren aldeko borroka agenden lehen lerroan jarri behar dugu. Zaintza lanak berrantolatzeke eskakizuna proposamen politiko bihurtuz, borroka bide oso bat antolatuz.

Eta noski, ezinbestez borrokatu beharko dugu enpleguaren suntsiketaren kontra, lana eta aberastasuna banatzea eskatuz, borroka gaur daukagun enpleguaren defentsara mugatu gabe.

Bizitzak hobetu nahi baditugu, lana barra-barra dago guztientzat. Gure bizitzak, herria, hizkuntza eta kultura zaintzeko eta elikatzeke lan asko egin behar da. Nola antolatu, nola ordaindu, nola lortu eskubideekin egitea eta eskubide iturri izatea?



**Alternatibak sinesgarri egiten ditugu edukiz betetzen ditugunean.**

**'Bizigarriak diren bizitzak' aldarrikatzen ditugu.**

**Zer da hori?"**

**Eta zein osasun egoeratan ikusten duzu ezkerria horri guztiari aurre egiteko? Herritarrentzako alternatiba sinesgarriak eta sendoak dituela uste duzu?**

Alternatibak sinesgarri egiten ditugu edukiz betetzen ditugunean. 'Bizigarriak diren bizitzak' aldarrikatzen ditugu. Zer da hori? Ze aldatu behar da arlo ekonomiko, politiko eta sozialean guzti-guztion bizitzak bizigarriak izateko? Hori lortzeko zertan aldatu behar da ezkerriaren estrategia, zertan aldatuko gara maila pertsonalean?

Eta sendoak izango dira egoera iraultzeko bidean baliaigarriak badira. Herriak bere egiten dituen neurrian lortuko dugu ezkerria eta ezkerretik egiten diren alternatibak sendotzea. Mobilizazio ziklo berria indartzen ari zela bidali gaituzte etxera. Bide hori berreskuratu eta erroto behar dugu euskal langileen artean, herrietan eta auzoetan. Bazterrean dauden kolektibo eta sekto-

reetara iristen den bidea izango dela ziurtatuz.

**Eskubide Sozialen Kartak greba deitu zuen urte hasieran, sindikatuek "udazken gorria" iragarri zuten... konfrontazioak zer paper jokatu behar du aro berri honetan?**

Konfrontazioa izango da inposatu nahi diguten normalitate berriaren gainetik alternatibei bidea emango diena. Funtsezko jarduerak eteteke auzian sindikatuek eta patronala aurrez aurre ikusi genituen. Disputa hori ezinbestekoa da normalak ez diren politika basatiak inposatzen dizkigutenean normalitatea ez dadin egonkortu.

Karta soziala aliantza markoa da politikak aldatuko dituen konfrontazioa adosteko, antolatzeke eta herriratzeke. Bere papera baldintzak sortzea da, Euskal Herriak behar duen eraldaketa edukiz betetzea, prozesua borroka sozialekin hauspotzea eta elikatzea, eta instituzioen aurrean ahots propioz airtzeke aukera ematea sektore sozialei. Hori guztia behar beharrezkoa izango da krisi honetan ere, nola egin da erronka.

**Lurrikara baten erdian gaude, zaila ematen du ziurtasunak eta erantzun argiak izatea... ziurtasunik gabe saiatzeke eta arriskatzeko garaia da?**

Gertatuko dena idatzia dagoela eta mugiezina dela sinetsiz gero, ziurra da ahal duten guztia kenduko digutela. Ziurtasunen arabera jokatzeko badugu irabazteke gutxi dugu. Arrazoia gurea da.

Baina hori ez da nahikoa, hau botere kontua da eta boterearek daukate.



**Arrazoia gurea da. Baina hori ez da nahikoa, hau botere kontua da eta boterearek daukate"**

2008an agenda neoliberalak gure gainetik pasa zen, asko borrokatu arren. Baina Alternatibak Herriak erakutsi zuen Euskal Herriaren badagoela espazio sozial, sindikal eta politiko bat alternatibei bizitza eta ibilbidea emateko, egin genuen borrokaren emaitzetako bat hori da zalantzarik gabe. Baldintzetan gaude gure gidoia idazteko, eta anbizioarekin borrokatuz gero botere ekonomikoaren asmoak herri harresi sendo batekin topatuko direla sinesten dut. ●